

Ziberkazetaritza-idazkeraren ezaugarriak

SARRERA

- Komunikabide digitalak: [kazetaritza egiteko beste modu bat](#)
- Hasieran, 1990eko hamarkadaren erdialdean, hedabideek prentsaren estiloa mailegatu zuten.
- Internetek kontatzeko mekanismoak aldatu ditu eta intuitiboagoa den irakurketa bat lortu du.
- **Informazioaren joskera berria...**
 - Mundu digitalak badu bere kontaera berezkoa, informazioa egituratu eta josteko bere *gramatika* berria, hipertestuan, interaktibitatean eta multimedia baliabideetan oinarritua. Horrek, ezinbestean, *kazetaritza egiteko bestelako modu bat* ekarri du, etengabe aldatuz doana.
 - Era berean, Internetek bidea eman du kazetaritzaren muinari berrekiteko: argi komunikatzeko, labur eta zehatz, edukiak hierarkizaturik, garrantzitsuena lehenbailehen azalduz. Eta hori guztia, berehala, informazioa gertatu ahala emanez, eta hipertestu amaigabe batean irakurleekin interakzioan komunitatea sendotuz (Berria, estiloliburua).

SAREKO HEDABIDEAK		HEDABIDE TRADIZIONALAK
Elkarreragina	<-->	Hausnarketa
Berehalakotasuna	<-->	Azterketa
Pertsonalizazioa	<-->	Estandarizazioa
Tokikotasunaren galera	<-->	Tokikoa
Leialtasun apala	<-->	Leialtasun handia
Multimedia-zerbitzuak	<-->	Paperezko euskarria

2. TAULA

Sareko hedabideen eta euskarri tradizionalen garatutako ezaugarriak

Iturria: Cerezo eta Zafra (2003, *apud* Larrondo, 2008)


- Internetek kontatzeko formulak aldatu ditu...

HIPERTEXTUALITATEA

ZER: Loturen bidez erlazionatutako eduki-unitateetan oinarrituz (nodoak), diskurtso-egitura linealak eta ez-linealak antolatzea.

NOLA: Edukiak edo informazioak nodotan zatituz eta estekatuz, erabiltzaileak loturetan klik eginez bere ibilbidea egin dezan. Loturak estrategikoki pentsatu behar dira diskurtso koherente bat antolatzeko, kontuan hartuz loturen eskaintza baten aurrean erabiltzaileak bata edo bestea aukeratu dezakeela.

- Elkar lotu daitezkeen informazio-zatiak *nodoak* deitzen dira, eta elkarrekin lotzeko elementu nagusia (*hiper*)*loturak* edota *estekak* dira (*link-ak*) (Caridad eta Moscoso, 1991: 137):
 - *Nodoa*: hiperloturen bidez lotugarria den edozein informazio-zatia. Unitate hauek testualak, ikus-entzunezkoak eta grafikoak izan daitezkeenez, *hipermedia* kontzeptua erabili ohi da.
 - *Lotura*: informazio-zati ezberdinen arteko elkarketa.




1. IRUDIA
Hipertestualitatearen eragina idazkeran
 Iturria: Egilea


- Hiperloturen erabilerari buruzko hurrengo gomendioak azpimarra daitezke (Berria kazetako estilo liburua):
 - Jarri estekak
 - Egin mota askotako estekak
 - Loturak, barrenean nahiz sumario gisa
 - Erabili hitz deskriptiboak
 - Etiketak ere estekak dira
 - Egiaztatu ea badabilen
- Hiperloturen erabilerari buruzko hurrengo gomendioak azpimarra daitezke (Salaverria, 2005: 126)
- Hiperloturak hitz-gakotan oinarrituta egon behar dira

- Esaldien edo paragrafoen amaieran kokatu, erabiltzaileak irakurketa amaitu aurretik loturak sakatzeko arriskua saihesteko
- Testuaren barnean loturak argi eta garbi bereizi, koloreak edo azpimarrak erabiliz
- Loturak adierazgarriak izango dira; erabiltzaileak zalantzarik gabe jakin behar du zein eduki mota dagoen lotura baten atzean (bideoa, audioa, grafikoa, sakontzeko informazioa, etab.). Horretarako, ikonoak erabiltzea aproposa da.
- Lotura mota asko daude Interneteko hedabideetan. Hauexek dira ohikoenak:
 - Barruko loturak: hedabidearen beste web-orrialde batera eramaten gaituzte, ziber-hedabidearen URL bera duena
 - Atalezko loturak
 - Tituluzko loturak
 - Lotura gehigarriak (informazio erlazionatua eskaintzen dute: aurreko berriak, webgune bereziak, dokumentuak, bideoak, etab.). Hauek testu batean txertatuta ager daitezke, edo testutik kanpo, aurkibide, menu edo zerrenda gisa.
 - Kanpoko loturak: hedabidetik at dagoen web-orrialde batera eramaten gaituzte, ziber-hedabidearen bestelako URLa duena.
- Hipertestu-egiturei dagokienez, Interneteko hedabideetako informazio-generoetan adarkatuak edo zuhaitz-formako egiturak dira ohikoenak

EGITURA AXIALAK



SARE-FORMAKO EGITURAK



3. IRUDIA

Hipertestu-egitura ohikoenak ziber-hedabideetan
Iturria: Salaverria (2005), egokitua

MULTIMEDIATASUNA

ZER: Testuko eta ikus-entzunezko kodeak bateratzea komunikatzeko.

NOLA: Informazio bat kontatzeko zein den formaturik egokiena (Testua, irudia, soinua eta abar) bereizi behar da. Era berean, istorio bat kontatzeko adierazpen modu horiek guztiak zelan batu edo antolatu behar diren zehaztu behar da.

- Komunikabide digitaletan, irudiz lagunduriko testua baino askoz gehiago biltzen da, bertan bat egiten baitute hiru bitartekok: testuak, irudiak eta audioak. Hala, kazetariak eskura dituen baliabide guztiekin jokatu behar du sarean: bideoak, infografiak, mapak, telebista, lokuzioak, elementu interaktiboak... Harreman informatiboak sortu behar dira horien artean, elkarren osagarri baitira; izan ere, sarearen edukia horixe da, bitarteko askoren interakzioa, euskarri bakarrean (Berria kazetako estilo liburua).
- Multimedia munduan, testuak ez dauka zertan informazioaren ardatza izan; esaterako, [bideo bat](#) edo audio bat ezin egokiagoa izan liteke zerbait kontatzeko. Bideoan ikusi edo audioan entzun dena, jakina, ez da errepikatu behar testuan. Kazetariak garbi izan behar du berri bakoitzean zein den bitarteko nagusia, eta horren bidez emandako informazioa osatu egin behar du besteetan, erreduzantziarik gabe.
- monomediatik multimediarara.
- Multimedia-elementuen konbinazioaren arabera, bi aukera bereiz daitezke (Salaverria, 2001) (multimedia-ereduak)
 - a) *Hipermedia* (Justapozizioa):»Testuak, audioak, irudiak, bideoak edota grafikoak hiperloturen bidez konbinatzen dira. Erabiltzaileak elementu hauek independenteki kontsumitzen ditu berri edota erreportaje baten barruan. Hipertestu-egitura integralaren ikuspuntutik, produktu hauek ‘pakete’ edo ‘edukiontzi’ bat osatzen dute (multiple media, webgune bereziak).
 - b) *Multimedia* (Integrazioa):»Testuak, audioak, irudiak, bideoak edota grafikoak integratuta azaltzen dira mezu berean eta denak batera kontsumitzen dira. Hau da benetako multimedia (multimedia package, benetako multimedia da).
- [Multimedia-konbergentzia](#): Komunikabideen integrazioa
 - [Ondorioak](#) (teknologian, erredakzioan, profesioaletan eta edukietan)
- Cross-media edo multiplataforma-estrategia

INTERAKTIBITATEA

ZER: Kontsumitzaile berriei kasu egitea, eta hedabidearekin zein beste erabiltzaileekin komunikatzeko aukera bat baino gehiago eman.

NOLA:Erabiltzaileak bultzatuz:

- A. Galderak egitera(elkarrizketa digitaletan)
- B. bozkatzera(inkesta digitalak)
- C. Berriak komentatzera eta sare sozialak trukatzera
- D. Iritzia ematera
- E. Eztabaidatzera (foroak)
- F. Komunikatzera (posta elektronikoaren bidez, blogetan eta abar)

- Bi interaktibitate mota ditugu ziber-hedabideetan: selektiboa eta komunikatiboa (Rost, 2006). Hauetan guztietan, elkarreraginak erabiltzailea hartzaile aktibo bihurtzen du.
- A) *Interaktibitate selektiboa*
 - Hipertestu-loturak sakatzean ematen da gehienetan. Nabigatzeko interaktibitate hau, beraz, loturen, barren edo botoien bidez ematen da, erabiltzailearen eta sistemaren arteko elkarreragina bultzatuz. Oso oinarrizkoa denez, elkarreragitea aukera ezberdinen artean bat hautatzera mugatzen da.
- B) *komunikatiboa*
 - Ziber-hedabide baten hartzaileen arteko edo komunikabidearen eta hartzailearen arteko elkarreragina bultzatzen du.
 - *Parte hartzeko elkarrekintza*: erabiltzailea beste erabiltzaileekin komunikatuz parte hartzeko balio du, inkesta digitalen bidez, foruetan, joko interaktiboetan, etab.
 - *Interaktibitate produktiboa edo sortze-interaktibitatea*: erabiltzaileak komunikabideari edukiak bidali diezazkioke.
- Ziberkazetaritza-hizkuntzaren beste ezaugarriak:
 - Denborazkotasuna (etengabe eguneratzeko aukera)
 - Memoria (mugagabea)
 - Pertsonalizazioa

Albiste ziberespazioan

SARRERA

- Paperetik Ziberespaziora Eraldaketa (Interaktibitatea, berehalakotasuna, etab.)
- Zer da ‘ziber’albiste? Definizio klasikoa abiapuntu baliagarri bat da harira jotzeko.
 - “Albiste gaurkotasunari estu-estu loturik dago eta hauxe dauka helbururik behinena: zer gertatu zen kontatzea, bere soilean, kazetariaren inolako marka pertsonalik gabe (...) Hau da, gertaera bati lotutako berria da, zer jazo den ulertzeko oinarrizko testua, nondik norakoak azaltzen dituen” (Berria, 2006: 19).
- Egunero gertakizun asko komunikabideetara iristen dira. Baina guztiak ez dira berriak, ez dira beraz komunikabideetan agertuko. Nola jakin zer izan daitekeen berria eta zer ez? Abiapuntua, gertakizuna da.
 - Gertakizun batek albiste bihurtzeko jarraian agertzen diren 8 elementu horietako batzuk bete behar ditu:
- Gertakizun batek albiste bihurtzeko jarraian agertzen diren 8 elementu horietako batzuk bete behar ditu:
 - Gaurkotasuna: Berria berri izan behar da, gaurkoa, edo behintzat lehengo berri bati buruzko elementu berriak izango ditu. Beti zerbait berri ezagutzera eman behar da. ***Interneten kontzeptua desberdina da: berehalakoa da.***

- Hurbiltasuna: (fisikoa eta kulturala). Zenbat eta gertuago egon orduan eta interesgarriagoa da.
- Azpimarragarritasuna/Garrantzia: Gizaki, toki, gauza edo egoera ezagun eta azpimarragarriek balio handiagoa dute albiste bat emateko orduan
- Bitxitasuna: Txakur batek ume bati koska egiten dio (ez da berria), ume batek txakur bati koska egiten dio (berria da)
- Gatazka: ez bakarrik gatazka fisikoa, bestelakoak ere bai
- Suspensea (hauteskundeak, bahiketak...)
- Hunkigarritasuna: Zirrara, emozio, giza interesa (Adib. Bidaia bat egingo duzu eta elurra dagoela dakizu...)
- Ondorioak: (elementurik garrantzitsuena izan daiteke gaur). Ondorioak garrantzitsuak badira, sortzen dituen gertakizuna berri bihurtuko da
- ***Zerbitzua**: gaur egun gero eta garrantzitsuagoa da (Adib. errentaren aitortzea, egunkariak gauzak gogora arazten dituzte)

EZAUGARRI BERRIAK

- Baina aldi berean albisteari ezaugarri berriak gehitu behar dizkiogu.
 - “Egun ziberkazaritzak berezko hainbat ezaugarri ditu. Horietako batzuk ikus-entzunezko hedabideetan ere agertzen dira, baina beste batzuk, aldiz, sarean bakarrik ikus daitezke” (Armentia, 2009: 162).
 - Hipestestua
 - Sekuentzialtasun eza
 - Izaera multimedia
 - Elkarreragilea dela
 - Berehalakotasuna, sakontasuna eta iraunaldia...
 - Testua zatituta eskaintzen da (hipertestuala edo hipermedia da)
 - Informazioan gero eta gehiago sakontzeko posibilitatea hipertestuaren ezaugarrietako bat da, eta idazketa linealaren kontra dokumentua zatitzea ekartzen du
 - Sarreraren rola indartu egiten da (daturik onenak erakuslehoan ipiniz)
 - Hedabide digitaletan ‘albistearen antolaketa’ eta ‘zati desberdinen arteko nabigazioa’ ezinbesteko kontzeptuak bilakatzen dira, bestela baliteke internauta informazioan galtzea.
 - Luzeak baino sakonak dira
 - Informaziorako sarbidea ez da sekuentziala (eta hori giza adimenaren prozesuetatik gertuago dago pentsamendua lineala ez delako).
 - Lotura hipermediei esker soinuekin eta bideoekin aberats daitezke
 - Berehalakotasuna (eta honek dakarren testuak etengabe eguneratzeko aukera, batez ere lehen orrialdean argitaratzen direnak).
 - Loturei esker irakurketa pertsonalizatua izan daiteke

- Kontaera hipertestuak: Esan liteke hartzaileak irakurtzean definitzen duela zeintzuk diren interesatzen zaizkion zatiak eta aldi berean kontaera eraikitzen doala, albistearen alde batetik bestera jauziz, gaian sakonduz bere jakin-mina ase arte

IDAZTEKO GOMENDIOAK

- Irakurlearen arreta hasieratik lortu behar da eta horretarako komenigarria da 5 W-en araua erabiltzea lehen orrialdean.
- Albisteak multimedia izan behar du. Hau da, testuak ez ezik irudiak eta soinuak ere posible denean eskainiko ditu.
- Internautek pantaila batean irakur dezaten egituratu behar dugu albistea. Neurri handiago edo txikiago batean pantailaren tamainak testuaren luzaera baldintzatzen du. Gainera dispositibo berrien pantailak ez dira oso handiak. Irakurgarritasuna ez da berdina paperean eta sakelako telefonoetan. Beraz, testuak zatikatu behar dira eta lotura batzuen bitartez erlazionatu behar dira erabiltzaileari gertaeran sakontzeko aukera emanez. Informazioa era ez linealean antolatzen da.
- Sakelako telefonoen bezalako pantaila txikiei aurre egiteko estiloaren arauak inoiz baino garrantzitsuagoak dira. Laburtasuna (esaldi laburrak), zuzentasuna eta argitasuna (esaldia lehen kolpean ulertu behar dugu) ezinbestekoak dira ahalik eta irakurle gehienengana iritsi nahi badugu.
- Internet-erako albiste bat idazterakoan gidoi bat prestatu behar da geruza edo orrialde bakoitzean kokatuko diren testu guztiekin, irudien kopuruarekin, etab. Nabigazio-egitura eta elementu guztien arteko bideak pentsatu behar dira idazten hasi baino lehen.
- Interneten egitura irekiak itxiak (linealak) baino eraginkorragoak dira. Erabiltzaileak zein bide hartu erabakiko du, geruza batetik beste geruza batera jauzi eginez.
- J. I. Armentiarren esanetan (2009: 174) sarerako testu batean ezaugarri hauek errespetatu behar dira:
 - 1-Lehen pantailakadaren garrantzia: Zibererabiltzaileak ez daki albistearen luzera zein den, beraz, begi-kolpe batez albistearen muinaz jabetu behar da.
 - 2-Albistearen data zehaztu behar da: Kazetak argi utzi behar du albistea noiz gertatu den eta noiz eskegi den web orrialdean. Albistearen data eta ordua idaztea komeni da. Horrela irakurleak albistea idatzi berri den ala ez jakingo du beti.
 - 3-Piramide iraulararen iraunaldia: Prentsa tradizionalen gertatzen den bezala, kazetariak ez daki zibererabiltzaileak albistea osorik irakurriko duen edo bakarrik lehen orrialdean dagoena. Horregatik berebiziko garrantzia du inportanteena hasieran ematea. Lehen orrialdean titulua eta lehen paragrafoa kokatzea komeni da.
 - 4-Albistea bere testuinguruan kokatu behar da:

- “Interneten albiste guztiek itxura berbera dute. Ez dakigu pantailan agertzen denak zatidurarik izango duen edo beste albiste edo testu batzuekin erlazionatuta egongo den. Berria bere testuinguruan kokatzeko, komeni da testu nagusiaren ondoan esteka batzuk jartzea. Esteka horien bitartez, albiste nagusiarekin erlazionatuta dauden beste fitxategi (testuak, argazkiak, bideoak, artxiboko materiala...) batzuetara jo dezake irakurleak” (Armentia, 2009: 176).

TITULUA

- Hainbat elementuk osatzen dute ziberalbiste baten titulazioa:
 - Titulua
 - Goititulua
 - Azpitulua
 - Zinta
 - Tartekiak...
- Zer da titulua?
- Tipografikoki elementurik handiena da eta albiste laburbiltzen du
- Poynter Institutaren Eye Track ikerketek erakusten dutenez aurren-aurrena tituluak irakurtzen dira.
- Eta batzutan titulua bakarrik irakurtzen da. Beraz, arreta handiz idatzi behar da. Ezin da edozein gauza jarri:
 - »Los niños vascos son los más piojosos (El Correo)
 - »Hoy es el fin del mundo, mañana hablamos (**Gente**)
- Independentea da. Tituluek, azpituluek eta aurretituluek esaldi independenteak izan behar dute.
- Ideia bakar bat sar daiteke: ZER eta NOR(K) (ez ahaztu pantaila tamaina)
- Hiru betekizun:
 - Funtzio informatiboa: testuaren edukia iragartzea
 - Funtzio apelatiboa: testua irakurtzeko gogo piztea
 - **Funtzio hipertestuala: nabigazioa**
- Sarean, tituluaren garrantzia nabarmen handitu da.
- Albistearen titulua inoiz baino garrantzitsuagoa da
 - »Titulu berbera euskarri besberdinetan (blogak, telefonoak...)
- Sareko albisteak isolatuta agertzen dira. Beraz, testuak zatikatuta eta geruza desberdinetan daudenez -ez dira bata bestearen ondoan agertzen- tituluak berebiziko garrantzia hartzen du zati guztiak behar bezala identifikatzeko.
- Prentsan, aldiz, hurrengo adibidean ikusten den bezala, desberdina da zeren albiste beti beste elementu batzuekin erlazionatuta agertzen baita eta hauek gertaera interpretatzen laguntzen dute:
- Interneten titulatzeko era aldatu da estilo berri bat abian jarri dute
 - SEO Titulazioa » bilatzaileei begira idatzi (albiste baten kokapena hobetu)

- “Zein izenburu jarriko diogu albiste honi?” bezalako galderei erantzutean...»
BILAKETA-TRESNAK
- Internautek informazioa aurki dezaten gako-hitzak ezinbestekoak dira, horretarako »
IDATZI BAINO LEHEN
- Kazetariak erabiltzaileek bilaketa baten inguruan erabiltzen dituzten gako-hitzak kontuan hartu behar dituzte » posizionatze-estrategia bat da albistea aurkitua izateko zaindu behar da
- Posizionatze-estrategia berri honetan:
 1. Sareko tituluak edukia nabarmentzen lagunduko du eta horregatik gakoak eskaini behar ditu zeren horiek esango baitiote bilatzaileari albistea zertaz datzan.
 2. Gakoak elementu desberdinetan errepikatzea komeni da eragina handiagoa izan dadin.
 3. Estrategia berri honetan sormen-tituluak (titulu kreatiboak) ez dute lekurik posizionatze-estrategia hau eragozten dutelako.
 4. Beraz, bilatzaileei begira idazterakoan adituek titulu laburrak hobesten dituzte, oso zehatzak, eta izenburuak biltzen dituen gako-hitzak bizpahiru alditan nabarmentzea komeni da albistearen beste titulu elementuetan (eta batez ere lehen paragrafoan) termino berdinak eta antzekoak erabilia.

TITULUA IDAZTEKO GOMENDIOAK

- Laburbilduz, sareko titulu on bat idazteko gomendioak:
 1. Argia. Tituluak erraz ulertzekoa izan behar du, berez. Albistearen laburpena da eta gertaeraren mamia azaldu behar du.
 2. Sareari begira titulatatu behar da. Horrek esan nahi du ‘SEO titulatze estila’ errespetatu behar dela.
 3. Oso zehatza idatzi behar da. Gertaeraren gako-hitzak ondo pentsatu behar dira zeren bilatzaileen emaitzetan eragin zuzena baitute.
 4. Gako-hitzak titulu elementu desberdinetan errepikatzea gomendatzen da zeren honek albistearen web-kokapenean eragin zuzen bat baitauka.
 5. Posizionatze-sistema honek titulu informatiboak hobesten ditu. Bilaketei dagokionez, sormen tituluak edo literatur tituluak ez dira egokiak.
 6. Laburra baina gramatikalki zuzena. Kazetaritzako hizkuntzak laburrera jotzen du. Are gehiago Internet-erako tituluak. Orokorrean sarean prentsa idatzian baino laburragoak dira.
 7. Ahal denean esaldiaren osagai guztiak jarriko dira. Tituluak osotasun sintaktikoa behar dute. Aditza jartzera jotzen da beti. Aditz laguntzailea orainaldian idaztea da egokiena.
 - a. **-Kutsu militarra uztailearen 14ak** (txarra)
 - b. **-Kutsu militarra izan du uztailearen 14ak** (hobea)
 8. Galdera klasikoei erantzun. Gehienetan *zer* eta *nor(k)* galderei erantzuten die.

9. Orainaldia, lehenaldia baino hurbilagoa. Lehenaldiaz abusatuz gero, badirudi kontu zaharrak berritzen ari dela kazetaria, baina, egiaz, berriak zahartzen ari da. Orainaldia hobe da kazetaritzarako, biziagoa baita, hurbilagoa. Testu barrenean baino are garrantzitsuagoa da titulu elementuetan (azpitutulua, aurretitulua) orainaldia erabiltzeko modua aurkitu behar du kazetariak, eta ez da batere zaila izaten gehienetan: erabili nahi izate hutsa nahikoa da, non eta ez garen aspaldiko kontu batez ari, eta bai, ohi den bezala, bezperako batez.
10. 10. Bezperako gertaeretan *gertatu da* jartzen da tituluari (posible denean). Testuan zehaztuko da noiz gertatu zen. Are gehiago “atzo” hitza ez da erabili behar tituluari, benetan adierazgarria ez bada behintzat.
- Euskaltzaindiak jardunaldiak aurkeztu zituen atzo** (txarra)
 - Euskaltzaindiak jardunaldiak aurkeztu ditu** (hobea)
11. 11. Inpertonaltasuna (EZ): Esaldi inpertonalek indarra kentzen diote testuari, eta ezkutatu egiten dute agentea edo egilea. Ez da erabili behar.
- Atzo aurkeztu zen emaitzak biltzen dituen txostena. Bertan, sektorearen diagnostikotik abiatuta, hainbat aholku eta proposamen egin dira aurrera begira.** (txarra)
 - Gizarte eragileek atzo aurkeztu zuten emaitzak biltzen dituen txostena. Bertan, sektorearen diagnostikotik abiatuta, hainbat aholku eta proposamen egin dituzte aurrera begira.** (hobea)
12. 12. Aktiboa, pasiboa baino hobea: Berriak kontatzean, esaldiek argi utzi behar dute nork zer egin duen, eta, horretarako, egitura aktiboak lagungarriak zaizkio kazetariari, adierazkorragoak eta biziagoak baitira. Aktiboa erabiliz gero, albisteak indar handiagoa izango du.
- Hamar lagun atxilotuak izan ziren Elgoibarren** (txarra)
 - Guardia Zibilak hamar lagun atxilotu ditu Elgoibarren** (hobea)
13. Puntuazio-zeinurik gabeko titulua da onena. Puntua ez da idatziko sekula eta salbuespenak salbu, koma eta puntu eta koma ez dira erabiliko. Are gutxiago harridura (!) edota galdera ikurrak (?), hitz testualak ez badira behintzat. Ikur hauek iritzi-sailera mugatuko dira.
14. 14. Bi puntuak eta koma bikoitzak (“ “) onartzen dira, titulua inoren adierazpena denean. Bi puntuak titulua kokatzeko ere balio dute.
- Goirizelaia: “Unibertsitatea gustatzen zait”**
 - Getxo: istiluak izan dira epaiketaren hasieran** (*Kasu hauetan, adierazpenetan ez bezala, bi puntuaren ondoren letra xehez idatzi behar da)
15. Tituluari izen propiorik jarri gero, izen-abizenak osorik edo abizena bakarrik erabiltzen da, laburdurarik gabe.
- Pedro Miguel Etxenikek Nobel saria irabazi du** (ondo)
 - Etxenikek Nobel saria irabazi du** (ondo)
 - P. M. Etxenikek Nobel saria irabazi du** (gaizki)
16. Egiazkoa. Gaiari erantzun behar dio beti. Ez dugu gertaeraren garrantzia puztu behar. Titulua ez da engainagarria izango. “Albiste baten tituluak ezin du oker ulertzeko

modurik eman, eta testu barrenean tratatuko ez den gai baten arrasto faltsurik ezin dio eman irakurleari.

17. Erakargarria. Irakurtzera bultzatu behar du. Irakurtzeko gogoia piztu behar du.
18. Gaurkotasunari lotua.
19. Beregaina. Tituluak independenteak dira. Ez dute gramatikalki testuarekin edo azpтитuluarekin loturarik. Ez dira testuaren eta beste titulu elementuen menpeko.

TITULU MOTAK

- Informatiboak: Bilatzaileei begira, egokienak dira.
 - **Berangora itzuliko da Bizkaiko ikastolen festa, 25 urteren ondoren**
 - *Hurbilduko direnei festaren helburu ekonomikoa ez ahazteko galdegin diete antolatzaileek*
- Adierazpen tituluak: Protagonistaren hitzak agertzen dira. Hitzak estilo zuzenean, zeharkakoan edo hibridoan eman daitezke.
 - **Maradona: 'Botereari eutsi nahi dion dinosaurioen museoa da FIFA'**
 - *Joseph Blatter FIFako presidente aukeratu berri dute eta horri buruz galdetu diotenean arazo barik bere iritzia eman du argentinarrak*
- Adierazkorra: Kiroletan asko erabiltzen dira. Esate baterako, astelehenean jendeak badaki bere taldeak irabazi duen ala ez. Kasu hauetan, gertatu dena ezaguna denean eta horretaz lehenago informazioa eman dugunean, titular adierazkorrak erabil daitezke. Modu literarioagoan idazten dira irakurlearen arreta deitzeko. Hitz gutxi erabiltzen dira baina oso espresiboak. Bilatzaileei begira ez dira egokiak.
 - **Haizea baino azkarrago**
 - *Naoko Takahashik munduko marka lortu du Berlingo maratoian*
- [Titulu engainagarria](#) (*clickbait* :“ciberanzuelo”): helburua ‘klick’ egitea baino ez da (Buzzfeed, Huffington Post, etab.).
 - **5 cosas que solo entenderás tú**
 - **3 cosas increíbles que son las más alucinantes del mundo**
 - **El divertido truco para saber cuántos años habrías vivido en la Edad Media**
 - **Amaia Montero alarma a sus fans con estos dos enigmáticos mensajes**
- Titulua ez ezik, beste elementu batzuek ere osatzen dute ziberalbiste baten titulazioa:
- *Goititulua eta azpitulua*
 - Ideia nagusia tituluaren dagoenez, albistearen beste ideia bat ematen dute. Tituluaren sartzen ez dena hemen sar daiteke. Hau da, erantzun gabe utzitako W batzuk. Esaldi independenteak dira sintaktikoki eta ez dira tituluaren jarraipena. Bilatzaileei begira gakoak errepikatu behar dira haien artean.
- *Zinta*

- Normalean gai batek denboran luzatzen denean (adib. Hauteskundeak) erabiltzen da. Gai bati dagozkion informazioak biltzeko erabiltzen da. Hitz gutxi erabiltzen dira .
- *Tartekia*
 - *Nolabait, tartekiek hurrengo lerrokadan dagoena aurreratzen dute. Idazkia zatitzen dute, testuari eta begiari arnasa emanez. Irakurketa arintzeko balio dute eta letra lodiz idatzi ohi dira. Bizpahiru hitzek osatzen dute titulu labur hau.*

BERRI-AURRERAPENA (TEASER)

- Teaser: berri-aurrerapena esan nahi du. Nolabait **nodo/geruza nagusian** esaten zaio irakurleari zer dagoen barruan, aurrera jarrai dezan nahi badu
 - Kasu gehienetan titulu eta testu batez konposatua dago.
 - *Teaser* batean erabiltzen den titulua (askotan) hurrengo geruzetan errepikatuko da irakurleak nabigatzean berehala leku zuzenera heldu dela ezagutu dezan.
 - Izenburuan dauden gako-hitzak edo kontzeptu nagusiak derrigorrez errepikatu behar dira hemen
 - Testu honek **erakusleiho** baten zeregina betetzen du eta informazioa iragartzen du. Osorik edo partzialki hiperestekatuta dago beti.
- Testua irakurtzeko gogoia eman behar du.
- Elementu honek begi-kolpe batez irakurlea harrapatu behar du. Horretarako, atariko lerrokada honek laburra, informatzailea eta erakargarria izan behar du.
- Lau funtzio dauzka:
 1. Ziberirakurlea gatibatzea: gertakarien aurkezpena da. Irakurlearen arreta bereganatu behar du.
 2. Ziberirakurleak ez du egunkari osoa irakurtzeko astirik. Albiste gehien kasuan *berri-aurrerapena (teaser)* baino ez du irakurtzen. Hortaz, albistearen muina erakusleiho horretan modu erakargarri batean islatu behar da.
 3. Kazetariarentzat azken orduko berri emateko funtsezkoa da Interneten. Erredakziora azken orduko berri bat iristen denean lehen lerroak eman daitezke, gertaeraz informatzeko albiste behar bezala lantzen den bitartean.
 4. SEO posizionatze-estrategia laguntzea. Gako-hitzak errepikatzen diren neurrian, albiste nabarmentzen laguntzen du web-kokapena hobetuz. Hau da, Interneten albiste bat kokatzen denean aurkitua izateko –ikuspena- gako-hitzen araberakoa izango da.
- Funtzioaren arabera hauek dira *teaser* mota erabilienak ziberalbistean:
 1. Laburpena: Informazio baten lehen paragrafoa da, eta bertan, albistearen esanguratsuena laburbiltzen da. Ahalik eta modurik zuzenean idatzia joan behar du eta 5 W-eko arauari erantzuten dio: *who, what, when, where* eta *why*. Baita *how* galderari ere.

2. Kontrastea: Irakurleari bi alde kontrajarri aurkezten zaizkio bere arreta erdietsi, eta nolabait, ondorioak atera ditzan. Batzutan irakurlea harritzea bilatzen du ere.
3. Galdera: Ez da galdera arrunta, galdera erretorikoa baizik. Kazetariak erantzunak eman behar ditu; irakurlearen jakin-mina asetu behar du. Dudak uxatu behar ditu. Hortaz, kontu handiz erabili behar da.
4. Girokoa: Giroa eta lekua da garrantzitsuena. Testuingurua, alegia. Gertaera jazotzen deneko giroa deskribatzen ahalegintzen da.
5. Kolpekoa: Esaldi labur eta indartsua da, eta irakurlearen baitan eragitea du helburu.

SARRERATXOA ETA GORPUTZA

- Nabigazio-egitura maila desberdinetan antolatuta dago
 1. Goi-maila (berri-aurrerapena): TITULUA + SARRERA
 2. Bigarren maila: SARRERATXOA + GORPUTZA
 3. Hirugarren maila: Informazio osagarria
- GORPUTZA: Sarrerarekin batera informazioaren gorputzak ziberalbistearen bigarren sakontasun maila errepresentatzen du sarean.
 - Atarirako gehiegi diren zehazkizunak, identifikapenak, ematen dira. Hau da, gertakizunak, datuak, azaltzen dira garrantzi gehiagotik garrantzi gutxiagora antolatuta (PIRAMIDE IRAULIA)
 - Gorputza ongi egituratzeko ideiak antolatu eta paragrafotan banatu egin behar dira. Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat garatzen da, behar dituen xehetasunekin baina gehiegi luzatu gabe.
 - Gorputzak beste eduki informatibo konplexuekin erlazionatzen du informazioa (hirugarren sakontasun-maila batean) >> ESTEKAK
 - Hipertestuari esker informazio hornituagoa eta zabalagoa eskaintzea posible da (informazio dokumentatuagoa eta testuinguru aberatsagoa)
 - Izenburuak biltzen dituen gako-hitzak bizpahiru alditan nabarmentzea komeni da gorputzean (SEO). Kontzeptu berdinak eta antzekoak erabilia albistearen web-kokapena hobetzen da.
 - Oso garrantzitsua da esteken hautaketa. Adibidez, SEO estrategiari begira Google izeneko bilaketa-tresnak hedabideak (bizitatzera eramaten gaituzten linkak) hobesten ditu.
 - Multimedia-osagaiak (bideoak, argazki-galeriak) kontakizunaren garapenean lagungarriak izan daitezke (erakargarritasuna bultzatu)
 - Albiste multimedialak informazio tradizionala (testuan oinarritzen dena) gaituzten du eta onura garrantzitsuak eskaintzen ditu irakurlearen atentzioa eta interesa pizteko eta mantentzeko.
 - Meso eta Larrondo (2010: 5): “Web-aren ‘audiobisualizazio-prozesu’ batean sartuta gaude momentu honetan. Hau da, euskarri guztietan ikus-entzunezko

materialaren kontsumoa oso bizkor hazten ari da. Horren ondorioz sarean nor izan nahi badugu, ikus-entzunezko baliabideak eskaini behar ditugu”.

IRAKURLEAREN PARTE-HARTZEA

- Irakurleei bide berriak irekitzen zaizkie parte-hartzeko posibilitatea
- “Ziberkazeta baten aurrean, irakurlea ez da soilik hartzaile pasibo bat. Bere esku-hartze maila areagotu egin da kazetaritza digital garatu den neurrian” (Armentia, 2009: 163).
- **2.0 Web-ak tresna berriak jarri ditu gure eskuetan:**
- Albistea lagun bati bidali
- Albistea inprimatu
- Erakutsi eduki hau zure webean edo zure blogean (embed)
- Albistea atsegin baduzu *Facebook* edo *Twitter* bezalako sare sozialetan ezagutzera emateko aukera
- Eztabaidetan parte hartzeko aukera hor dago, baita albistea osatzeko eta hobetzeko posibilitatea lankidetzaz ahalbidetzen duelako.
- Iruzkina eta zuzenketak egiteko aukerek generoa aldatzen dute
- Hedabide batzuk haratago joan dira eta zibererabiltzaileari bere informazioak zuzenean bidaltzeko posibilitatea eskaini diote ere.
- [ZuKazetari](#)
 - [Bottup](#)
 - [Crowdvoice](#)
- Kazetaritza berri honek...
- Hiritarren parte-hartzea bultzatzen du
- Herritarren esku jartzen ditu hainbat erreminta, berriemaile bihurtzeko.
- ‘Hiritar-kazetaritza’, ‘partaidetza-kazetaritza’ eta ‘3.0 kazetaritza’ deiturak gero eta gehiago erabiltzen dira fenomeno hau ukitzeko.
 - Aitzindaria: *Ohmynews.com* ziberkazeta (edukien %70 irakurleek idazten zuten)

Erreportajea sarean

DEFINIZIOA

- “Erreportajea objektibitatea gainditzea da, kazetaritza informatzailea oinarria izanik interpretaziora iritsiz. Mezu interpretatzaileak mezu informatzaileak dira, beharrezko diren osagarri adierazleekin hornituak, jasotzailea plural edo anitzari gaurkotasun gertakizunei buruzko balorapen bat emateko. Erreportajeak, beraz, duela gutxi gertaturikoaz informatzen du, eta gehienetan, gertakizun horiek modu zuzen batez (albiste moduan) argitaratu dira; erreportajeak gertakizunen esanahia adierazten du, balizko ondorioak baloratzeko asmoz.

- Aurrekariak, datu adierazleak eta baloratzailleak kontakizunaren corpusean zehar tartekatzen dira, hasierako interpretazioa (sarreran ematen dena) indartzen duen ordenuan. Edozein kasutan, kazetariaren balorapenak dokumentatuak izango dira; sarreran azalduz gero, interpretazio horren aldeko dokumentazioa testu nagusiaren lehen paragrafoan agertuko dira. Adituen, lekukoen, agintarien deklarapenek (interpretazioek) kazetariaren interpretazioa indartzeko balio dute. Orainaren eta iraganaren arteko erlazioak analisiari eta balorapenari sakontasuna ematen dio, horregatik background delakoa oso garrantzitsua da. Beraz, background hori da, albistean ez bezala (non bigarren mailako laguntza besterik ez den), ezinbesteko osagarria” (Concha Fagoaga).

EZAUGARRIAK

- Genero hau egokia da hipertestualitatea eta baliabide multimedia aprobetxatzeko.
- Genero hau egokia da elkarreragina lantzeko.
- Sareko erreportajearen egitura albisteara baino libreagoa da. Iraulitako piramideak ez da beharrezkoa.
- Sareko erreportajea albistea baino konplexuagoa da. Beti albistea baino luzeagoa da.
- Hizkuntzaren aldetik, sareko erreportajearen kontraera literarioagoa da, libreagoa, kazetariaren nortasunaren arabera idatzia. Literario samarra izan daiteke. Adjektiboak onartzen ditu.
- Gauzak erakusten dira. Esan behar da gauzak nolakoak diren, idazlearen arabera. Nolabait kazetariak irizpideak ezartzen ditu, gauzak modu batez ikustarazten ditu. Horrela, gertakizunen bidez irakurleak bere arrazonamenduak sortarazten ditu. Iruzkina irakurleak jarriko du testua irakurri ostean.
- Sareko erreportajearen iturriak anitzak dira, iturri asko daude. Datuak iturri askotatik bilduko ditugu. Kazetariak harantzago joan behar du, datu horiek gai horretan adituak diren iritziekin interpretatu behar ditu.
- Originaltasuna bilatu behar da (ikuspuntuarengatik, gauzak ikusteko eragatik). Kolorea izan behar du baina aldi berean gauza mamitsuak azaldu behar dira.
- Hasiera erakargarri bat, garapen interesgarri bat eta amaiera zehatz bat izan behar du. Irakurlearen arreta piztu behar dugu. Ez du aspertu behar.

EGITURA

- **Tituluak**
 - Idazpurua ez da informatzailea bakarrik izango erakargarria ere izango da. Orain askatasun gehiago daukagu (askatasun formal eta estilistikoa).
 - Titulua umorezkoa izan daiteke, galderak ager daitezke.
 - Titulua eta azpititulua orain ez dira independenteak. Titulua arreta pizteko erabiltzen da maiz horregatik gero azpitituluak erreportajearen gaia azaldu behar du.

- Titulu kreatiboek (sormen tituluak) posizionatze-estrategia oztopatzen dute. Tituluak ZER galderari erantzuten ez badio gako-hitzak azpitoluan sartu behar dira (bilatzaileari esango diote erreportajea zertaz datzan)
- Sarean inoiz baino garrantzitsuagoa da (titulu berbera euskarri desberdinetan: blogak, tabletak...) (esteka bat da, portadan ematen dena, informaziorako sarbidea da).
- **Sarrerak**
 - A. Sarrerak hiru helburu dauzka:
 - a. Amu bat da irakurlearen arreta pizteko eta idazkiaren edukiaren pista bat ematen du.
 - b. Edukiaren gaineko iradokizun bat ematen du.
 - c. Irakurtzen jarraitzera gonbidatzen du.
 - B. Sareko erreportaje bat idazterakoan (hasterakoan) hiru aukera dauzkagu:
 - a. Originaltasuna: Gaia nahiko ezaguna denean ikuspuntu (enfoke) original bat bila dezakegu.
 - b. Berritasuna (nobedadea): Ezaguna ez den aspektu berri bat azal dezakegu sarreran
 - c. Nobedadea eta interesa *estiloaren* bidez (kontatzeko trebetasuna) lor dezakegu sarreran.
- Sarrera-motak (E. Ulibarri)
 1. Laburpen-sarrera (sumario-sarrera)
 2. Sarrera narratiboa
 3. Sarrera deskriptiboa
 4. Kontraste-sarrera
 5. Galdera-sarrera
 6. Zuzeneko apelazioa
 7. Aipu-sarrera
 8. Dedukzio-sarrera
 9. Kasuzko sarrera
 10. Sarrera parodikoa
 11. Suspense-sarrera
 12. Sarrera sinbolikoa
- **Sareko erreportajearen gorputza**
 - **Hiru osagarri** agertzen dira:
 - A. Giroa / background: sareko erreportajearen gertakizunak testuinguruan kokatzen dira eta oraina iraganarekin erlazionatzen da.
 - B. Datuak eta adierazpenak: Gertakizun zentrala, ideia nagusia ezagutzera eman behar da. Horretarako:
 - a. datu adierazkorrak, datu osagarriak erabili behar dira
 - b. adituen edo protagonisten adierazpenak sartu behar dira.
 - C. Balorazioak

- a. Adituen balorazioak, adituen interpretazioak beharrezkoak dira gaiaren garrantzia behar bezala ulertzeko.
- **Gorputza egituratzeko aukerak sarean:**
 - GAIKA SAILKATZEKO EGITURA (BLOKE TEMATIKOAK): Egoera baten aldeak identifikatu ondoren, kazetariak idazkia bloketan zatikatzen du. Bloke bakoitzari alde bat dagokio. Bloke (geruza) bakoitzean ikerketaren aspektu bat (zati bat) garatzen da.
 - [“La tierra esclava”](#)
 - [“Las muertas que no se ven”](#)
 - DIALEKTIKA EDO KONTRAPUNTUA (blokeak): Gai bati buruz bertsio desberdinak daudenean egitura hau erabili daiteke. Kazetaria bitartekari bihurtzen da eta iturrien ikuspuntu ezberdinak aurkezten ditu gaia argitzeko asmoz. Egitura hau erabili baino lehen, gaiari buruz pertsona baten edo batzuen iritzi desberdinak aurkitu behar dituzu.
 - KASUZ KASUKO EGITURA / HISTORIA PERTSONALAK (blokeak): Zinemaren eraginagatik sortu da. Kamera erraztasunez eszena batetik beste batera aldatzen da. Kasu independenteak dira baina tematikoki erlazionatuta daude. Sarrerak eszena hauek guztiak erlazionatzen, batzen ditu.
- **Gorputza egituratzeko aukerak sarean:**
 - KRONOLOGIA: Gauzak hasieratik azkeneraino kontaktzen dira. Gertakizun bat nola gertatu zen azaltzeko erabiltzen da (helburua ez da gauza bat nolakoa den esatea baizik eta nola gertatu zen).Kontaera kronologikoa erreportajearen momentu batean (egokia denean) aurki daiteke ere. Kontaera kronologikoak suspensea mantentzen du.
 - [Snow Fall](#)
 - La ruta 66: El camino hacia la Casa Blanca

ERREPORTAJE MOTAK

- **Informazio erreportajea**
 - Gai librekoa
 - Estilo zuzenean idatzia
 - Hipertestualitatea eta multimediatasuna EZ.
 - ontaketa lineala nagusitzen da.
 - Gertaerak azaltzen dira, baina ez daude, nahitaez, gaurkotasunari lotuak
 - Erreportaje honek bide ematen du albiste izan diren edo izan litezkeen gertaerak xeheago azaltzeko, nondik norakoen berri emanez.
 - Kazetaria dakiena edo ikusi duena bere hartan emateko ahaleginean aritzen da, kontaktzen diharduen gertaera eta egitatei buruzko epairik eta iritzirik eman gabe.
- **•Webgune berezia**
 - Edukiek (testuak, audioak, irudiak, bideoak) 'paquete' edo 'edukiontzi' bat osatzen dute. Erreportaje mota honek mikro-webgune baten tankera hartzen

du. Genero hau ziberhedabidearen site-aren atal zehatzetan aurki dezakegu (Adib. <https://elpais.com/elpais/especiales.html>)

- Dokumentazio lan handia eskatzen dute.
 - Idazlana ez da testu bakarra izaten: elkarrizketa zatiek ere lagundu ohi diote testu nagusiari; bideoek, infograma landuek eta argazki ikusgarriek ere sarri.
 - Informazio erreportajeak baino luzeagoak/sakonagoak izan ohi dira.
 - Eragin handiko gaiak (inmigrazioa, terrorismoa, langabezia, aldaketa klimatikoa, etab.) eta ekitaldiak ([Frantziako Tourra](#), hauteskundeak, urteurrenak) jorratzen dituzte.
 - Multimediatasuna aprobetxatzen du (argazki-galeriak, bideoak, infografikoak...)
 - Hipermedia dira.
 - Erreportaje berezia oso konplexua da (eta oso garestia):
 - a) Denbora
 - b) Baliabide teknikoak eta giza baliabideak
 - Erreportaje hauek identitate ikur gisa funtzionatzen dute, bakoitzak bere lehen orrialde eta diseinuarekin.
- **Erreportaje Multimedia**
 - Benetako multimedia da.
 - Baliabide edo eduki multimedien **integrazioa** eskatzen du.
 - Bideoak eta grafikoak oinarrizko baliabideak dira.
 - Elkarreraginaren garrantzia.
 - 2001eko irailaren 11ko atentatuen ondorioz garatu zen
 - (*Show, don't tell* leloa)
 - Simulazio originalak dira, produktu hauek originaltasuna bultzatzen dute.
 - Ordenagailu-jokoen antza dute.
 - Erreportaje honek bestelako gaitasunak eskatzen dizkie ziberkazetariei (programatzaileak, etab.)
 - **Erreportaje multimedieren ezaugarriak (López-García, 2003):**
 - Multimedia izaera
 - Sekuentzialtasun eza (irakurketa ez lineala)
 - Hipermedia
 - Mota askotako estekak (testuingurua, aurrekariak, dokumentazioa...)
 - Aldizkakotasuna apurtu
 - Interaktibitatea
 - Edukien irakurgarritasuna zaindu
 - Edizio/programazio-lengoaiak ezagutu
 - Irudi eta grafiko interaktiboen presentzia
 - **Erreportaje multimedia: Adibideak**
 - Snow Fall: Avalanche at Tunnel Creek (The New York Times)
 - Hiperestu-egitura: Erabiltzailea puntu ezberdinetatik sar daiteke baina irakurketa kronologikoki ordenatuta dago.

- Egitura: Kronologia nagusitzen da (elur-jausia zergatik gertatu zen, noiz eta nola)
- Testua erreportaje multimedia honen bizkarrezurra da
- Testu, irudi eta bideoaren arteko «osagarritasuna» bilatu du
- Infografia eta 3D irudien garrantzia
- Elkarreragina: Gutxi
- **Erreportaje multimedia: Adibideak**
 - Invited (Opus Deik egindako [erreportaje multimedia](#) Instagramen)
 - “Se trataba de crear un contenido diseñado desde el principio para ellos: en su lenguaje, con su modo de pensar. Por eso utilizamos una narrativa horizontal similar a las stories de Instagram y un tono divertido, distendido”, relata Amaya Sánchez-Ostiz, diseñadora de “Invited”.

Kronika sarean

SARRERA

- Internetek izan duen eragina ikusi aurretik komenigarria da kronikaren definizioari ekitea.
- Kazetaritzako testuak sailkatzeko tipologiak bi dira:
 - Anglosaxoia: *story* (informazioa), eta *comment* (iritzia)
 - Latindarra: informazio generoak, interpretazio generoak eta iritzi generoak
- Genero hau ez da lurralde anglosaxoietan erabiltzen, Espainian bereziki garatu den generoa da
- KRONIKA interpretazio genero bat da
- Zer da interpretazioa?
 - Iritzia uste subjektiboa bada, interpretazioa baloraketa objektiboa da, aurrekarietan, analisisan, osagaien arteko loturan eta gertakizunen azalpen ulergarrian oinarritua
- Kronika interpretatiboa dela esaten denean kazetariaren balorazio pertsonalaren protagonismoa agerian utzi nahi da.
- **1. Hibridotasuna:**
 - Informazioa, interpretazioa eta iruzkinak nahasten ditu
 - El País: kronika albistearen, iritziaren eta erreportajearen artean dabilen generoa da. Eta atzerriko berriemaileek (behin-betiko korrespontsalek), gertakizun batera bidalitako kazetariak (behin-behineko berriemaileek) eta kirol, zezen edo artearen gaineko gaietan erabiltzen dutela eranstu du
 - Martin Vivaldi: gertaera berritsu eta gaurkotuen informazio interpretatibo eta baloratiboa da, non kontakizunaz gain, jazoera bera ere epaitzen den.

- Vocento: berri baten kontaketa da non gertaeren narrazioa analisiarekin, intepretazioarekin eta kazetariaren ikuspegi profesionalarekin aberasten da. Kronikan **informazioa nagusitzen** da eta iritziak saihestu behar dira.
- Berria: Gertaera baten kontaketa egiten da, eredu objektibotik nagusiki, baina zilegi da balorazio kutsuko zertzeladak gehitzea. Denbora jakin batean gertatukoaren berri ematen da (kirol kronika, legebiltzarreko saio baten kronika...). Kronikagileak jakintzat jotzen ditu gertaeraren datu nagusiak, baina kontakizunaren lekukotza zuzena eskaintzen du.
- **2. Kronika, funtsean, informatzailea da**
 - Genero hau informazioa eta iruzkina da, aldi berean. Hau da, informazioan oinarritzen bada ere eta datuek lehentasuna badute ere, aldi berean iruzkinak bere lekua hartzen du. Eta hori izango litzateke, hain zuzen ere, hirugarren ezaugarria:
- **3. Kronika informazio komentatua da**
 - Informazio interpretatzailea da non gertakarien kontaketaz gain kronikagilearen interpretazioa eta azalpena ere ematen dira. Informatzeaz gain, kronistak irakurlea orientatu behar du, gertaeraren benetako dimentsioa argituz.
- **4. Jarraitutasuna**
 - Bi ikuspuntutatik ulertu behar da: egilea (esate baterako, egunero idazten duen korrespontsala); gaia (adibidez, burtsa-kronika)
 - Nolabait, kronistak telebistako berriemaile izarren karisma erdiesten du eta horrek bere sinadurak baliotsua bilakatzen du. Egilearen subjektibotasun hau da benetako kronika bereiztuko duena.
 - “Gertakari bat deskribatzen edo ekintza bat kontatzen duen aldizkako erreportaria baino askoz gehiago da kronista. Irakurlearen konfiantzazko laguna bezalakoa da. Izan ere, irakurlea ez da kronikak irakurtzera bultzatuta sentitzen aldeztatik ohiko kronistaren ideia eta literatur estiloarekiko begikotasunik eta erakargapenik sentitzen ez badu” (Martinez Albertos, 1983: 362)
- **5. Hizkuntza aldetik libre samarra da eta estilo arina** izan behar du anekdota eta bitxikeriaz josita
 - Datuak eta parte-hartzaileen hitzak emateaz gain, adierazpenak azaltzen ditu, testuinguru batean bildu eta giroa deskribatzen du.
 - Genero honetan giroa, kolorea eta erreakzioak onartuta daude.
 - Egile-testua denez, tonua literarioagoa da, kazetariaren nortasunaren arabera idatzia, eta nahi adina baliabide estilistiko erabil ditzake (metaforak, ironia, besteak beste)
 - Hala ere, iritziak saihestu behar dira eta askatasun formal horrek ez luke lehen pertsona oinarri hartu beharko. Lehen pertsona erabiltzea ez da gomendagarria

KRONIKAREN GARAPENA SAREAN

- **Ainguraketa espazioa eta denboran**
 - Kazetaritza-kronika bereziki mugatuta dagoen espazio eta denbora zehatz batean kokatzen da
 - Genero hau informatiboki azkar debaluatzen da kasu gehienetan
- **Berehalakotasuna**
 - Albistea eta kronika gaurkotasunari eta berehalakotasunari lotuta daude sarean baina ziberkronikari dagokionez kronistaren ikuspuntuak bereizten du informazioa balio erantsi bat gehitzen dion neurrian
- **Interaktibitatea**
 - Kronista eta irakurlearen artean gainontzeko generoetan pentsaezina den **familiaritate** bat sortzen da (egilearen sinesgarritasunaren menpekoea da)
- **Izaera multimedia**
 - Argazkiak, infografiak... Fitxa teknikoak asko erabiltzen dira. Izan ere, ikuskizunaren oinarriko datuak biltzen dituzte (zezenak, jokalaria, aktoreak, etab.).
 - Era berean, gertakariaren momenturik garrantzitsuenak jasotzen dituzten soinu edo bideo artxiboak eskeintzen dira ere, esate baterako, golak, ekitaldi baten protagonisten hitzak, etab.
- **Kronistak eta blogariak**
 - Bitakoren erabilpena da sareko kronikak bereizten duena
 - Kronistaren ikuskera pertsonalaren garrantzia handitzen da (egilearen ikuspuntu horrek justifikatzen du argitalpen honen arrakasta ziberespazioan)
 - Blog-munduan ospe handiko pertsona izatera iritsi da kronista eta ziberkomunikabideak estilo informal hau erabiltzen hasi dira kronista-blogariaren figura **konfiantzazko lagun** handi bat izango balitz bezala, eta ez soilik gertakizun gordinak ematen dituen kontalari bat.
 - Horrela, sareko blogak edukiak beste generoek ahalbidetzen duten baino era hurbilagoetik ezagutzera ematen ditu eta **etxekotasunaren moduko lotura honek** bereziki definitzen du generoa sarean.
 - Kronika paperetik ziberespaziora pasatu da eta eboluzio horretan bitakorak lehen mailako protagonismoa hartu du
 - Biek informazio eta interpretazio erdibidean dagoen antzeko erretorika dute
 - Bietan egilearen garrantzia, bere ikuskera pertsonala nagusitzen da.
 - Gai-tratamenduan ere parekotasun bat dago zeren kazetariak ez baitu gertakarien berri ematen soil-soilik. Interpretatu eta azaldu ere egiten ditu.
 - Haatik, desberdintasun handi bat dago hipertestu eta interaktibitatearen ustiapenari dagokionez: Hau da, bloga da sareak ematen dituen aukerak hobeto aprobetxatzen dituenak. “Eta bide batez kronika eta gainontzeko informazio-generoek etorkizunean jarraitu ahalko duten eredu ezartzen ari da” (Salaverria, 2005: 157)

- **Formula berriak**
 - Dударик ez, gehienbat genero hau blogetan aurkitzen da.
 - Esan liteke bitakorak gainbehera zihoan kronikari haizea eman diola
 - Ziberkronikari dagokionez, hurrengo bi ereduak aipatu behar dira:
 - [‘zuzeneko kronika’](#) (adib. futbol partida bat, Oscar sariak...)
 - [‘azken orduko kronika’](#) (adib. atentatu bat)
- Zenbait ziberhedabidek irрати-estiloa barneratu dute
 - ‘berehalako kronika’ bezalako eredu berriak ugaritzen ari dira sarean
 - Zuzeneko emankizunak edizio digitaletan agertu dira
 - ‘minutu eta emaitza’ formatua gailentzen da (kirol-kroniketan)
 - kronika digital hauek argazkiekin ez ezik, soinu eta bideo artxiboekin ere aberasten dira.
- Zuzeneko kronika
 - Sareko kronika euskarriaren ezaugarri berrietara moldatu da.
 - Ikus-entzunezkoetan erabili diren formatuak beregain hartzen ditu (‘zuzeneko kronika’ eta ‘azken orduko kronika’ bere egin du).
 - “Gehienbat, genero hau kiroletan erabiltzen da. Orrialdea minuturo edo bi minuturik behin berriztatzen da, eta bitarte horretan gertatukoa kontatzen digute. Txirrindularitzan askotan 5 kilometroro berregiten da orrialdea. Ikuspegi zurrun batetik emankizun hauek ez dira zeharo zuzenean egiten, beti atzerapentxo bat dago gertakizunetik kontakizunera. Hala ere, ezinezkoa zirudiena, testuaren bitartez gertatzen dena aldi berean kontatzea, alegia, posible da Internetek eskaintzen duen aukerari esker” (Armentia, 2009: 167).
- Zuzeneko kronika
 - [Barcelona-Real Madrid, en directo](#)
 - [Catalunya: Últimas noticias tras la polémica en el 1-O, en directo](#)
 - [Así te hemos contado el tiroteo de Las Vegas](#)
 - * ez ahaztu Twitter
- Azken orduko kronika:
 - Eredu honek irрати eta albiste-agentzien estiloak eredutzat hartzen ditu, ohizko kronikekin zerikusirik ez duen testu bat sortuz.
 - Testu hau premiazko albisteen estiloan –ustekabeko gertaerak eta kolpe handiko gertaerak- oinarritzen da
 - Bizpahiru paragrafotan gertaeraren datu nagusiei buruzko ideia bat ematen da
 - Helburua ez da gertaera baten datu gehienak ematea, horretarako beste testu luzeago batzuk eskegiko dira hedabidearen web gunean egunean zehar (*flash* hauek gero albiste bihurtuko dira)

KRONIKA MOTAK

A. LEKU BATI BURUZKOAK

- a. Berriemaile berezi edo finkoaren kronikak
- b. Tokiko kronika eta gizarte kronika
- c. Bidaia kronika
- d. *guztietan, **bitakoren** presentzia gero eta nabarmenagoa da

B. GAI BATI BURUZKOAK

- a. Gertakizun-kronika eta epai kronika
- b. Kronika politikoa
- c. Kirol-kronika
- d. Zezen-kronika
- e. Kultura-kronika

● Berriemaile berezi edo finkoaren kronikak

- [Atzerriko berriemailea](#):
 - Beste herrialde batean bizi da
 - Lurralde batean garrantzia izan duten gertaerak jaso eta interpretatzen ditu, balorazioak sartuz
 - Atzerriko herrialde horren gaietan aditu behar du izan
 - Bere aurpegia oso ezaguna egiten zaio irakurleari (familiaritatea eta jarraipena sortzen dira)
- Behin-behineko berriemailea:
 - •Familiaritatea eta jarraipena neurri handi batean galtzen dira
 - Berriemaile berezi bat da
 - Gertakari esanguratsu bat atzerrian gertatzen denean hedabideek korrespontsalak bidaltzen dituzte horren berri eman dezaten baina hori egin ondoren etxera bueltatzen da
- Famatuena gerra-korrespontsala da: Irak-eko gerra (2003)
 - Golkoko gerrari 'Internet-eko gerra' esaten zaio (bide berriak ireki)
 - Blogen erabilpena, korrespontsalaren aldetik, Irak-eko gerran agertu zen fenomeno bat da
 - Irak-eko gerra garaian AEBetako internauten %17rentzat sarea izan zen informatzeko iturri nagusia
 - [Christopher Allbriton](#): *Back to Iraq (2003)*. Honi esker bidaia eta egonaldia finantzatzeko gai izan zen
 - [Kevin Sites](#): *CNN*ko erreportari honek bitakora bat sortu zuen eta tximista baino azkarrago bere enpresak ixtera behartu zuen
 - [David Beriain](#): Viaje a la frontera (La Voz de Galicia). Beriain izan zela gerra batean blog bat sortu zuen lehenengo korrespontsala (Estatuan)
 - [Mikel Ayestaran](#): hilero 16 testu idatzi behar zituen ABC kazetarako

- **Tokiko kronika eta gizarte kronika**

- Martinez Albertosen iritziz gizarte kronika tokiko kronikaren alde oso berezia da eta bere nortasuna pixkanaka urardotzen ari da egunkarien sasi-publizitate jarduera bat bilakatuz.
- Hiriko gaurkotasunari lotuta dago eta gehienetan oso subjektiboa da.
- Egunero argitaratzen da hiriko gizarte-irudikapen bat eginez.
- Maiztasun finko bat dauka
- Bertan hiriko bizitzaren gertaera nagusiak (kontzertuak, inaugurazioak, liburu berrien aurkezpenak, sariak, etab.) oinarri hartzen ditu eta giroa eta protagonistei buruz iruzkin bat egiten du
 - [La Mirilla](#) (Txema Soria) eta [El callejón de las botxerías](#) (Jon Mujika).

- **Tokiko kronika eta gizarte kronika**

- Eredu honetan izen abizenak ezinbestekoak dira.
- Oso atsegina da, laudagarria eta goreslea. Ez dago eraso-jarrerarik eta ez da inoiz sarkastikoa izango.
- Argazki-galeriak bakarrik, eta estekak oso kasu gutxitan erabiltzen dituzte testu barruan.
 - Adibidez: [La Mirilla](#) (Txema Soria) eta [El callejón de las botxerías](#) (Jon Mujika).

- **Bidaia kronika**

- Komunikabideek gero eta leku zabalagoa eskaintzen diote bidaia kazetaritzari.
- Blogen garrantzia
- Bidaia-kronika erreportajetik gertu dago
- Oso literarioa da
- Bidaia kronikak ez dute kazetaritza motibazio argirik
- Normalean idazle entzutetsuen eginiko bidaien testigantza ematen da. Askotan atzerrira egindako egonaldi baten fruitua da
- Sarritan argazki batekin hasten da narrazioa. Alde grafikoak Sareko bidaia kronikan berebiziko balioa dauka
- Infografiak, mapak eta planoak (balio erantsi bat)
- Esteken bitartez irakurlearen esku jartzen ditu herrialdeei buruz eta hango bizitzaren inguruan interesa duten materialak, artikuluak eta argazkiak
- Batzuetan zuzenean egonaldiaren plangintza eta erreserbak, museoetako sarrerak eta bere egonaldian behar duen guztia erreserbatzeko zerbitzuarekin lotuta dago Interneten
- Ziberkronistaren eskutik bisita gidatuak egiteko posibilitatea daukagu, hiri edo leku bat ezagutzeko erarik onena
 - Adibideak: [Paco Nadal](#) eta [Isidoro Merino](#)
 - Aitzindaria: [Matt Gross](#) (New York Times): Kronika tradizional eta osagarri multimedialak bateratu zituen

- Sms-ak ere erabili zituen bere irakurleekin harremanetan jartzeko. Are gehiago, istorio batzuk *Google Maps* tresnarekin diseinatu zituen.
- Egunkariko esparru jakin batzuk –kirola, politika, zezenak, arte edo ekonomia, besteak beste- kronika moduan ematen dira. Gaiari dagokionez, hauek bereizten dira sarean:
 - Gertakizun-kronika eta epai kronika
 - Kronika politikoa
 - Kirol-kronika
 - Zezen-kronika
 - Kultura-kronika
- **Gertakizun-kronika eta epai kronika**
 - Gertakizunak ez du interes politiko, ekonomiko, kulturalik. Giza-interesa nagusia da.
 - Gaiaren tratamendua sentsazionalista da eta barnean gertakizun odoltsuak –hilketak, heriotzak, istripuak, hondamendiak- eta gertaera morbosoak –eskandalu polizialak eta sexualak bereziki- aurki daitezke.
 - Testu hauen presentzia sarean nahiko urria da eta orokorrean bertsio inprimatueta plazaratu diren eduki berberak dira.
 - **Kronika judiziala:** (AEBetan) Gertaera odoltsu bat juzgatzen denean epai kronikak epaiketa-gelan gertatzen den guztia jasotzen du
- **Kronika politikoa**
 - Parlamentuari buruzko informazioak dira. Gaia arintzeko kronika moduan ematen dira.
 - Sarean formula berriak zabaldu dira kronika politikoan:
 - Babesteko digitalak
 - Hautagaien blogak kanpaina politikoetan
 - **Kronika politikoa**
 - Parlamentuari buruzko informazioak dira. Gaia arintzeko kronika moduan ematen dira.
 - Sarean formula berriak zabaldu dira kronika politikoan:
 - Babesteko digitalak
 - Hautagaien blogak kanpaina politikoetan
 - Hautagaien blogak kanpaina politikoetan:
 - (2004) Howard Dean-ek blogen indarrak baliatu zenean primarioak irabazteko
 - Gero beste politikari batzuek: G.W. Bush, Jonh Kerry, OBAMA (2008)
 - Alderdi politikoaren estrategietan eta bere hautagai nagusien presentzia blogen eta sare sozialen bidez bideratzen da nagusiki
 - 2009ko lehendakariaren kanpaina: “Euskal Legebiltzarrerako hauteskunde hauetan hautagaiak euren kanpainak segimenduz

arduratu ziren sarean eta euren bitakoretan kanpaina-egoeraren txosten zehatzak aurki zitezkeen, kronologikoki ordenatuak eta soinu eta bideo artxiboekin hornituak. Hautagaien artean, [Juan Jose Ibarretxe](#) eta [Patxi Lopez-en](#) arteko norgehiagoka nabaritu zen. Borroka Internetera eroan zuten eta baita blogen bidez hauteskunde-mitinak zuzenean eman zituzten” (Peña, 2011: 9-12).

- **Kirol-kronika**

- Kirolei buruzko informazioak kronika moduan planteatzen dira
- Sareak [kirol-kronika](#) errotik eraldatu du.
- Kirol-kronikak besteek baino hobeto egin du salto hori (bideoak, infografiak, estekak...)
- Irrati-estiloaren eragina: [zuzeneko kronika](#).
- Sarean, esate baterako, futbol-partida batean iruzkina emateaz gain, kazetariak fitxa teknikoa, emaitza, parte hartu duten jokalariek eta minutuak, golak, etab. eman behar ditu, eta hortik irtengo da iruzkina (zein ondo edo ze gaizki egin zuten).
- Interneten bideoak golekin, bideoak jokalarien adierazpenekin, infografiak taldeen taktikekin edo infografiak sailkapenekin aberasten dira
- Kirol-kronikak bi aspektu onartzen ditu: *a priori* eta *a posteriori*. Zer gertatu zen partida hasi baino lehen (eta giroa) eta zer gertatu zen ondoren. Bi gauza hauek kirol-kroniketan besterik ez dira ematen. Zezen-kronikak, politika-kronikak, gizarte-kronikak eta kultur kronikak ordea, kronika *a posteriori* baino ez dute onartzen. Gertaera amaitu ostean egiten dira beti.
- Kirol-kronikak, bi aurkari daudenean, gutxienez fitxa teknikoa eroaten du. Aldiz, politika kronika, gizarte-kronika eta kultura-kronikak ez dute fitxa teknikorik behar. Bai ordea, giroa eta protagonisten inguruko informazioa eta zehazkizunak.
- Egitura albistearena baino libreagoa da. Ez du zertan piramide irauliaren egitura aintzat hartu behar. Modu kronologikoa erabil daiteke.
- Normalean kronistaren eta (partidan, kontzertuan edo korridan zegoen) publikoaren artean adostasun bat dago eta iruzkinak hori erakusten du. Kronista gertaera ikusi zuten ikusleen iritziarekin bat dator. Sintonia bat dago kazetaria eta ikusleen artean. Dena den, kazetaria nolabait epaile bihurtzen da, zerbait kontatzen du baina aldi berean epaitu ere egiten du.
- Kazetariak modu inpersonalean hitz egiten du. Forma inpersonalak erabiltzen dira. “NI” saihestu behar da. Horretaz gain, hizkuntza zaindu behar du. Kirola gustuko duten irakurle guztientzat ulergarri eta atsegina behar dute izan kronika

- **Zezen-kronika**

- Betidanik, zezenketen nondik norakoak kontatzeko genero hau erabili ohi da .
- Kronika hauetan ere kazetaria nolabait epaile bihurtzen da, ikuskizunaren gorabeherak kontatzen ditu eta aldi berean toreatzaile eta zezenen portaeraren

inguruko iritziak ematen ditu. Zentzu honetan, kazetaria eta ikusleen arteko sintonia aipatu behar da zeren kronistaren interpretazioak hori islatzen baitu. [Zezenketa-kronikak](#) zein ganadutegikoak dira zezenak (fitxa tekniko gisa), zezen-hiltzaileen izenak, publikoa, sariak, ezbeharrak (ustekabeak) eta meteorologia derrigorrez behar ditu, eta aipatu denez, *a posteriori* baino ez da idazten.

- Hizkuntzari dagokionez, oso hizkera berezi bat behar dute testu hauek. Gizarteko sektore zehatz bati zuzenduta daude, baina gainontzeko kroniketan ez bezala, irakurlea aditua ez bada ulertezina gertatuko zaio.

- **Kultura-kronika**

- Giroa eta protagonisten inguruko informazioa eta zehazkizunak nagusitzen dira.
- Gertaera edo ikuskizuna amaitu ostean egiten dira (*a posteriori* baino ez du onartzen).
- Guillermo Lopezen aburuz (2003: 485) ikuskizun-kronikaren izenez ere ezagutzen da eta [kontzertuak](#), estreinaldiak eta zezenketak, besteak beste, aurki daitezke kronika-mota honen barruan. Gizarte-kronikaren alde oso berezia izango litzateke berarentzat.